

**BERANGO UDALERRIKO ESPAZIO PUBLIKOAN KALEKO EDANA
GALARAZTEKO UDAL JARDUERA ARAUTZEN DUEN
UDAL ORDENANTZA**

HITZAURREA

Kaleko edanaren gizarte-fenomenoak udalerriko herritarrei eragiten dizkien kalte larriengatik sentsibilizatuta dago Berangoko Udala. Izan ere, azken urteotan areagotu egin da kaleko edana eta erabilera publikoko espazioetan egiten da. Hori dela eta, Udalaren ustez egokia da Ordenantza hau onartzea, bere helburua osasun publikoa, batez ere adin txikikoen osasuna, babestea baita, bai eta udal espazio publikoak modu arrazionalen erabiltzea ere. Horrela, herritar guztiek kale eta espazio publikoetara gozatzeko aukera izango dute, kaleak, plazak eta parkeak neurritz kanpo hartzea dakarten jarduerak herritarren lasaitasun eta bakeari kalte larriarik egin barik. Izan ere, batzuetan atsedean hartzeko, osasuntsu egoteko eta espazio horietatik aske ibiltzeko eskubideak urratu egiten dira. Eskubide horiek guztiak babesgarriak dira eta administrazioak bete daitezkeen zaindu behar du.

Kaltetutako guneetan bizi diren auzokoen kexak gero eta ugariagoak dira eta gero eta gehiago eskatzen dute udalaren esku-hartzea, denbora luzez neurritz kanpoko portaerak izatearen ondorioz kalterik gerta ez dadin, eta gertatzen diren, ahalik eta gutxien izan dadin. Izan ere, jarduera horiek hainbat ordutan luzatzen dira, arratsaldetik goizaldera arte, eta kale, plaza, parke eta erabilera komuneko guneak hartzen dira, zarata handiak sortzen dira eta zikina pilatzen da, hainbat gauza geratzen baitira kalean: ontziak, poltsak, beirak, gorotzak, gorakoak, etab.

Zalantzarik gabe, jokabide horiekin beste pertsona batzuek ezin dira kaleetan lasai ibili eta ezin dute espazio, plaza edo aisialdirako guneetara gozatu, luzaroan pertsona talde handiek okupatuta egoten direlako. Hori aisialdiko jarduera espontaneo da baina ez dauka neurri zuzentzailearik eta arlo hori arautzen duen berariazko arautegi sektorialetatik kanpo geratzen da. Hala ere, eragin kaltegarriak eta ondorio larriak sortzen ditu, kutsadura anizkuna dei daitezkeenak, eta ez dago horretaz arduratzen den erakunde antolatzailearik.

Udalak, administrazio publikoa den neurrian, elkarbizitza eta herritarren lasaitasuna bermatu behar ditu eta, ildo horretatik, batzuek kaleak eta espazio publikoak ez okupatzea bermatu behar du, gainerako herritarren kalterako delako.

Hori guztia kontuan hartuta, Ordenantza honen bidez jokabide desegokiak zuzendu nahi dira, kaleko edana debekatuz, osasunerako, batez ere adin txikikoen osasunerako, kaltegarria delako eta auzokoentzat oso gogaikarriak direlako horren ondorioak; gainera, edateko erabiltzen den espazioa edo gunea kaltetzen da.

Nabarmentzekoa da administrazioaren eskumena dela, poliziaren funtzioan, herritarrek kalte larria eragiten duten ez-ohiko jokabideak galaraztea, bide publikoen erabiltzaileen jarduera arautuz, herritarren zati batek eskubide bat betetzeak ez ditzan kaltetu eraginpeko auzotarren eskubideak.

Arau hau idazten den unean zenbait lekutan ikusten dira gizalegerik gabeko jokabide horien eraginak. Oso larria da Landaidako egoera, aldi-an aldi-an eta behin eta berriro sortzen baitira mota horretako bilguneak, batez ere asteburuetan. Kale horietako bizilagunek kalte larriak jasan behar dituzte etengabe: hondakin ugari pilatzea, zarata jasanezinak, kalean ibiltzeko eta euren etxetara sartzeko zailtasuna. Era berean, kalte larriak gertatzen dira ondasun publiko eta pribatuetan.

Ordenantza hau egiteko legezko oinarriak hauek dira:

Konstituzioaren 103.1. artikulua adierazten du administrazio publikoak objektibotasunez bete behar dituela interes orokorrak.

Testu berak jasotzen du 43. eta 45. artikuluetan, osasuna babesteko eskubidea eta egoki den ingurumena izatearen eskubidea babestu behar direla; beraz, horretarako, botere publikoek zainduko dute baliabide natural guztien erabilera arrazionala, bizitzakalitatea babestu eta hobetzeko, eta aisialdiaz behar bezala baliatzen lagunduko dute.

Erregelamenduak egiteko ahalaren ondorioz, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 4. eta 84. artikuluek herritarren jardueran esku hartzeko eskumena ematen die udalei, ordenantzen bidez.

Toki Korporazioetako Zerbitzuen Erregelamenduaren 1. artikuluan ezartzen da udalek herritarren jardueretan esku har dezaketela, polizia funtzioan, herritarren lasaitasuna, osasungarritasuna edo moralitasuna nahasten direnean edo nahasmendu larriaren arriskua dagoenean, horiek berreskuratzeko edo gordetzeko.

Tokiko Gobernuak modernizatzeko 57/03 Legearen 139. artikulua ezartzen du «Toki-erakundeek toki-intereseko elkarbizitza-harremanak eta beren zerbitzuen, ekipamenduen, azpiegituren, instalazioen eta espazio publikoen erabilera egoki antolatzeko, arloan berariazko araudirik egon ezik, arau-hausteen sailkapena finkatu ahal izango dute, baita zehapenak ezarri ere, eginbeharrak, debekuak zein murrizpenak ez betetzeagatik».

I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.-Arauaren oinarria

Hauek dira Ordenantza honen oinarriak: osasun publikoaren eta osasungarritasunaren babesa; errespetua ingurumenari; atsedean hartzeko eskubidea, auzotarren lasaitasunerako eskubidea eta etxebizitzaren bortxaezintasunerako eskubidea; espazio publiko garbia eta degradatu gabekoa gozatzeko eskubidea eta bide publikoaren erabilera ordenaturako eskubidea, espazio komunek ez dezaten eduki erabilera gehiegizkoa eta baztertzaila, herritarren bizikidetza baketsua bermatzeko.

2. artikulua.-Arauaren helburua

1. Ordenantza honen helburua «kaleko edana» Berangoko espazio publikoetan debekatzea da.
2. Ondorio horietarako, «kaleko edana» pertsona talde bat kalean edo espazio publikoetan egotea da, edariak kontsumitzen, batez ere alkoholduak direnean (ostalaritzako lokaletakoak ez direnean), eta pertsonak pilatzearen edota kontsumoaren ondorioz, espazio publikoa erabiltzen duten pertsonak eta auzotarrak gogaitu daitezkeenean, inguruko lasaitasuna eragotzi daitekeenean edo osasungaiztasunak eragin daitezkeenean.
3. Bereziki debekatuta dago «kaleko edana» herritarren bizikidetza modu larrian nahas dezakeenean. Nahasmendu hori egoera hauetako bat gertatzen denean gertatuko da, bildutako pertsona kopurua alde batera utzita:
 - a) Herritar multzoek modu masiboan kontsumitzen dutenean edo jendetza biltzeko gogoa pizten denean.
 - b) Kontsumoa oinezkoentzako edo espazio publikoen gainerako erabiltzaileentzako iraingarria den eran gauzatzen denean.
 - c) Bilgunea edo jarduera toki berezietan sortzen denean, hau da, adin txikikoek erabili ohi duten guneetan, edo ume eta nerabeen aurrean garatzen denean.

II. TITULUA ZEHATZEKO ARAUBIDEA

3. artikulua.-Printzipio orokorrak

1. Ordenantza hau hausten denean jarriko diren zehapenak ezartzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko

otsailaren 20ko 2/1998 Legean arautzen den prozedura edo legez horren ordezt har daitekeena erabiliko da. Xedapen horietan jasotzen ez den gauzaren bat gertatzen bada, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako zigortzeko ahala arautzen duten printzipioak beteko dira.

2. Ordenantza honen aurkako arau-hauste administratiboak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke. Sailkapen hori Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 7ko 7/1985 Legearen 140.2. artikuluan ezarritako irizpideen arabera egin da; artikulua hori Tokiko Gobernuaren modernizatzeari buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak sartu zuen.

4. artikulua.-Arau haustekak

1. Hauek dira arau-hauste oso larriak:
 - a) Agintarien eta botere publikoen kontrolatze-lanak, ikertze-lanak edo zehapen-lanak oztopatuzko ekintzak edo ez-egiteak, Ordenantza hau betetzeko euren eskumenak erabiltzen ari direnean.
 - b) Udal agintariek edo udaltzainek emandako aginduak edo eskakizun zehatzak ez betetzea.
2. «Kaleko edana» arau-hauste larria da Ordenantza honetako 2.3. artikuluan jasotako egoera bat edo bat baino gehiago gertatzen direnean.
3. «Kaleko edana» arau-hauste arina da Ordenantza honetako 2.2. artikuluan definitu denaren arabera.

5. artikulua.-Zehapenak

Tokiko Gobernuaren modernizatzeari buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legearen 141. artikuluan jasotakoa betetzeko, Ordenantza honetan ezartzen diren arau-hausteen zehapenak hauek dira:

- Arau-hauste oso larriak, gehienez ere 3.000 euro.
- Arau-hauste larriak, gehienez ere 1.500 euro.
- Arau-hauste arinak, gehienez ere 750 euro.

6. artikulua.-Esku hartze zehatzak

Aurreko artikuluetan jasotako kasuetan, agintaritzako agenteek edariak, enbaseak edo debekuaren helburu diren gainerako elementuak, bai eta erabilitako beste

material edo baliabide ere, kendu eta zuhurtasunez konfiskatuko dituzte. Konfiskatutako edariak berehala suntsituko dira, arrazoi higiene-sanitarioak direla eta.

7. artikulua.-Zehapena mailakatzeko irizpideak

1. Ordenantza honetan ezarritako zehapenen zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko da proportzionaltasunaren printzipioa eta, betiere, mailakatzeko irizpide hauek:

- a) Arau-haustearen garrantzia.
- b) Nahita egin izana.
- c) Eragindako kalteak nolakoak diren.
- d) Behin eta berriro egin izana.
- e) Arau-hauslearen ahalmen ekonomikoa.

2. Araua behin eta berriro hautsi dela ulertuko da lehenengo arau-haustetik urtebetean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago dagoenean, administrazio-bidea amaitzen duen erabaki baten bidez horrela adierazi denean.

3. Artikulu honetako lehen paragrafoan ezarritako egoera astungarrietako bi baino gehiago aldi berean gertatzen direnean, dagokion zehapenaren gainetik dagoena ezar dezake organo eskudunak.

4. Artikulu honetako lehen paragrafoan ezarritako egoera astungarririk ez dagoenean, eta bai erruduntasunaren egoera aringarriak, dagokion zehapenaren azpitik dagoena ezar dezake organo eskudunak.

8. artikulua.-Zehapenen erantzukizuna

1. Araua hautsi duen pertsona edo pertsonak nortzuk diren jakiteko ikerketak egin ondoren ezinezkoa bada arau-haustean parte hartu duten pertsonen partaidetza-maila zehaztea, erantzukizuna solidarioa izango da.

2. Gurasoen, tutoreen edo zaintzaileen erantzukizun zibil subsidiarioa bere horretan utzita, adin txikikoek egindako arau-hausteen erantzule zuzenekoak eta solidarioak izango dira, iruzurra, errua edo arduragabekeria gertatzen denean, kargu ez egite soila ere barne delarik.

9. artikulua.- Agintaritzaren agenteek egiaztatutako gertakariak

Ordenantza hau aplikatzeko izapidetzen diren zehapen-prozeduretan, agintaritzaren agenteek egiaztatutako gertakariak frogabalia daukate; hala ere, hori ez da eragozpen izango interesdunek ere frogak aurkezteko.

10. artikulua.- Zehapenen zertarakoa eta horien ordeaz egin daitekeena

1. Ordenantza hau aplikatzen diren zehapen ekonomikoen zenbatekoa udalak gazteen aisialdirako antolatzen dituen programetara atxikiko da eta horietan erabiliko da oso osorik.
2. Ordenantza hau aplikatzean ezartzen diren zehapen ekonomikoak kasu hauetan indargabetu ahal izango dira:
 - a) Udalak komunitatearen onerako ezartzen dituen lanak edo jarduerak egitea onartzen badu arau-hausleak.
 - b) Udalak zehaztuta, alkoholaren kontsumoa prebenitzeko eta osasunean dauzkan eraginei buruz egin daitezkeen ikastaroetan parte hartzen badu arau-hausleak.

11. artikulua.-Zehapenak indargabetzeko prozedura

1. Zehapena ezartzen duen agintari eskudunak zehapenak indargabetzeko espedienteak hasi eta ebatziko ditu eta, era berean, indargabetzearen amaiera erabakiko du.
2. Arau-hausleak, eskabide baten bidez, aurreko artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira komunitatearen aldeko lanak edo jarduerak egiteko edo ikastaroetan parte hartzeko borondatea agertzen duenean, prozedura hasi egingo da.
3. Indargabetzearen aldeko erabakia ematen bada, agintari eskudunak zehapenaren preskripzio-epea eten egin dela adieraziko du, lanak, jarduerak edo ikastaroak irauten duen bitartean.
4. Eten horretan, agintari eskudunak egoki deritzon jarraipena egin dezake asistentzia eta lanen emaitzen inguruan.
5. Jasotako informazioaren arabera arau-hausleak behar den moduan bete badu bere konpromisoa, agintari eskudunak zehapena zati batean edo osorik kentzea erabakiko du.
6. Aurrekoa zati batean edo osorik ez bada betetzen edo Ordenantza honetan tipifikatutako arauen bat berriro hausten bada, agintari eskudunak zehapena betearazteko espedienteak aurrera egitea ebatziko du.

ORDENANZA LOCAL REGULADORA DE LA ACTUACIÓN MUNICIPAL PARA IMPEDIR LA PRÁCTICA DEL BOTELLÓN EN EL ESPACIO PUBLICO DEL MUNICIPIO DE BERANGO

PREÁMBULO

El ayuntamiento de Berango, sensible a los graves perjuicios que se están irrogando a los vecinos del municipio por el actual fenómeno social de la práctica del botellón, que durante los últimos años ha venido aumentando, y que se practica indiscriminadamente en los espacios de uso público, ha considerado oportuno aprobar la presente Ordenanza que tiene como finalidad proteger la salud pública, sobre todo de los menores, así como la utilización racional de los espacios públicos municipales, garantizando el disfrute de todos los ciudadanos de las vías y espacios libres, sin que las actividades de algunos, que implican un uso abusivo de las calles, plazas y parques, supongan un perjuicio grave a la tranquilidad y a la paz ciudadana, afectando al derecho al descanso, a la salud, a la pacífica utilización de las dotaciones públicas, todos ellos aspectos susceptibles de protección y que la administración tiene el deber de cuidar.

Significar a este respecto que cada día son más frecuentes las quejas de los vecinos y vecinas de las zonas afectadas, demandando la intervención municipal para erradicar o paliar las consecuencias perjudiciales que sufren, a consecuencia de comportamientos abusivos que se prolongan durante largo tiempo, desde horas vespertinas hasta entrada la madrugada, invadiendo calles, plazas, parques y zonas de disfrute común, generando ruidos de elevada intensidad y cúmulo de suciedad, al quedar esparcidos en el lugar de concentración gran cantidad de envases, bolsas, vidrios, deyecciones, vómitos, etc...

Obviamente estas conductas impiden el que otras personas puedan transitar libremente por las calles y disfrutar de espacios, plazas y zonas de esparcimiento, por estar ocupadas durante periodos prolongados de tiempo por agrupaciones de personas, suponiendo una actividad recreativa de carácter espontáneo, ausente de medidas correctoras, que quedan al margen de la normativa sectorial específica reguladora de la materia, pero que en todo caso produce efectos nocivos y graves perjuicios, susceptibles de ser calificados como de contaminación múltiple, no existiendo ninguna entidad organizadora responsable de los mismos.

El ayuntamiento, como administración pública, debe garantizar la convivencia y tranquilidad ciudadana e impedir el uso abusivo de las vías y espacios públicos por parte de unos, en perjuicio evidente del resto de la comunidad.

Por todo ello, con esta ordenanza se pretende corregir comportamientos inadecuados mediante la prohibición de la práctica del botellón, por ser nocivos para la salud, sobre todo de los menores, y gravemente molestos para el vecindario, además de causadores de daños al espacio o entorno donde se producen.

A este propósito, conviene destacar que compete a la administración en su función de policía, impedir la utilización anormal de los espacios públicos regulando la actividad de los usuarios para procurar que el ejercicio de un derecho, por parte de un sector de la población, no menoscabe los de los vecinos y vecinas de las zonas afectadas.

Significar también que en el momento de la redacción de la presente norma, son varios los lugares afectados por estos comportamientos incívicos, siendo especialmente grave la situación en la zona de Landaída, donde se producen asentamientos de manera periódica y reiterada, preferentemente durante los fines de semana, viéndose los vecinos y vecinas de estas calles en la obligación de soportar continuos y graves perjuicios, tales como: acumulación de grandes cantidades de residuos, ruidos insoportables, dificultad para transitar y acceder a sus viviendas, y al margen de los graves daños en bienes públicos y privados.

El amparo legal en la elaboración de esta Ordenanza es la siguiente:

Artículo 103.1 de la Constitución, en cuanto la Administración Pública ha de servir con objetividad a los intereses generales.

Artículos 43 y 45 del mismo texto, en cuanto otorgan protección a la salud y al disfrute de un medio ambiente adecuado, debiendo los poderes públicos velar por la utilización racional de todos los recursos naturales para proteger y mejorar la calidad de vida, así como facilitar la adecuada utilización del ocio.

Los artículos 4 y 84 de la ley 7/85, de bases del Régimen Local, que faculta a los Ayuntamientos para intervenir la actividad de los ciudadanos a través de la emisión de ordenanzas en el ejercicio de la potestad reglamentaria.

El artículo 1 del Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales, en la medida que faculta a los ayuntamientos a intervenir en las actividades de sus administrados en el ejercicio de la función de policía, cuando existiera perturbación o peligro de perturbación grave de la tranquilidad, salubridad o moralidad ciudadana, con el fin de restablecer o conservarlos.

Y finalmente, el artículo 139 de la ley 57/03, de modernización del gobierno local, al declarar que «para la adecuada ordenación de las relaciones de convivencia de interés local y del uso de sus servicios, equipamientos, infraestructuras, instalaciones y espacios públicos, los entes locales podrán, en defecto de normativa sectorial específica, establecer los tipos de infracciones e imponer sanciones por el incumplimiento de deberes, prohibiciones o limitaciones...»

TITULO I DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Fundamento de la regulación

Con la presente Ordenanza se persigue proteger la salud pública y la salubridad; el respeto al medio ambiente, el derecho al descanso y tranquilidad de los vecinos; el

disfrute de un espacio público limpio y no degradado y la ordenada utilización de la vía pública, impidiendo la utilización abusiva y excluyente de espacios comunes en detrimento de la pacífica convivencia ciudadana.

Artículo 2. Objeto de regulación

1. Esta Ordenanza tiene por objeto prohibir la «práctica del botellón» en los espacios públicos del municipio de Berango.

2. A estos efectos, se entiende como «práctica del botellón», el consumo de bebidas, preferentemente alcohólicas, no procedentes de locales de hostelería, en la calle o espacios públicos, por un grupo de personas, cuando como resultado de esa actividad se puedan causar molestias a las demás personas que utilicen el espacio público y a los vecinos y vecinas, perturbar la tranquilidad y/o provocar situaciones de insalubridad.

3. La «práctica del botellón» alterará gravemente la convivencia ciudadana, con independencia del número de personas concentradas, si concurre alguna de las siguientes circunstancias:

a) Se produzca un consumo de forma masiva por grupos de ciudadanos o ciudadanas, o se invite a la aglomeración de éstos.

b) Se exteriorice el consumo de forma denigrante para los viandantes o demás usuarios de los espacios públicos.

c) Se realice la concentración y actividad en espacios singulares por tratarse de áreas de afluencia de menores o presencia de niños, niñas y adolescentes.

TITULO II REGIMEN SANCIONADOR

Artículo 3. Principios generales

1. Las sanciones por infringir la presente Ordenanza se impondrán conforme al procedimiento regulado en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del país Vasco, o la que legalmente la pudiera sustituir. En lo no contemplado por estas disposiciones se atenderá a los principios que regulan la potestad sancionadora recogidos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del procedimiento Administrativo Común.

2. Las infracciones administrativas contra la presente Ordenanza se clasifican en muy graves, graves y leves. Esta clasificación se establece atendiendo a los criterios establecidos en el artículo 140.2 de la Ley 7/1985 de 7 de abril, reguladora de las bases de Régimen Local e introducido por la Ley 57/2003 de 16 de diciembre, de modernización del Gobierno Local.

Artículo 4. De las infracciones

1. Constituyen infracciones muy graves:

a) Las acciones u omisiones constitutivas de conductas obstruccionistas a las tareas de control, investigación o sanción de los agentes de la autoridad y poderes públicos en el ejercicio de sus funciones competenciales para el cumplimiento de la presente Ordenanza.

b) El incumplimiento de las órdenes o requerimientos específicos formulados por las autoridades municipales o sus agentes.

2. Constituyen infracción grave la «práctica del botellón» cuando concurren una o varias de las circunstancias señaladas en el artículo 2.3 de la presente ordenanza

3. Constituye infracción leve la «práctica del botellón» conforme se ha definido en el artículo 2.2 de la presente Ordenanza.

Artículo 5. De las sanciones

Las sanciones previstas para las infracciones reguladas en la presente Ordenanza conforme a lo previsto en el artículo 141 de la ley 57/2003, de 16 de diciembre, de modernización del Gobierno Local, son las siguientes:

-Infracciones muy graves, multa de hasta 3.000 euros.

-Infracciones graves, multa de hasta 1.500 euros.

-Infracciones leves, multa de hasta 750 euros.

Artículo 6. Intervenciones específicas

En los supuestos recogidos en los artículos anteriores, los Agentes de la Autoridad retirarán e intervendrán las bebidas, los envases o los demás elementos objetos de la prohibición, así como otros materiales o medios empleados. Las bebidas intervenidas serán eliminadas inmediatamente por razones higiénico-sanitarias.

Artículo 7. Criterios para la graduación de la sanción

1. Para la determinación de la cuantía de las sanciones previstas en esta Ordenanza, se tendrá en consideración el principio de proporcionalidad y, en todo caso, los siguientes criterios de graduación:

a) La trascendencia de la infracción.

- b) La existencia de intencionalidad.
 - c) La naturaleza de los perjuicios causados.
 - d) La reincidencia y la reiteración.
 - e) La capacidad económica de la persona infractora.
2. Se entenderá por reincidencia la comisión de más de una infracción de la misma naturaleza en el término de un año desde la comisión de la primera cuando así haya sido declarado por resolución que ponga fin a la vía administrativa.
3. Cuando concurren más de dos circunstancias agravantes del comportamiento sancionable, de entre las previstas en el párrafo primero de este artículo, el Órgano competente podrá imponer la sanción superior en grado a la prevista.
4. Cuando no concorra ninguna circunstancia agravante, de entre las previstas en el párrafo primero de este artículo, y sí circunstancias atenuantes de la culpabilidad, el Órgano competente podrá imponer la sanción inferior en grado a la prevista.

Artículo 8. Responsabilidad de las infracciones

1. En el supuesto de que una vez practicadas las diligencias de investigación oportunas tendentes a individualizar a la persona o personas infractoras, no fuera posible determinar el grado de participación de los diversos sujetos que hayan intervenido en la comisión de la infracción, la responsabilidad será solidaria.
2. Sin perjuicio de la responsabilidad civil subsidiaria de los padres o madres o tutores o tutoras o guardadores o guardadoras por las acciones de los menores de edad que dependan de ellos, aquellos serán también responsables directos y solidarios de las infracciones cometidas por los menores de edad, siempre que, por su parte, conste dolo, culpa o negligencia, incluida la simple inobservancia.

Artículo 9. Hechos constatados por agentes de la autoridad

En los procedimientos sancionadores que se instruyan en aplicación de esta ordenanza, los hechos constatados por los agentes de la Autoridad tienen valor probatorio, sin perjuicio de las pruebas que puedan ser aportadas por los interesados.

Artículo 10. Destino y sustitución de las sanciones

1. El importe de las sanciones económicas obtenidas por la aplicación de esta Ordenanza, quedará afecto y deberá destinarse íntegramente a financiar programas municipales de ocio para jóvenes.

2. Las sanciones económicas impuestas en aplicación de esta Ordenanza podrán ser suspendidas:

a) Si el infractor acepta la realización de trabajos o actividades en beneficios de la comunidad que se establezcan por el Ayuntamiento.

b) Si el infractor participa en cursos que pudieran impartirse sobre la prevención del consumo de alcohol y conocimiento de sus efectos sobre la salud que determine el Ayuntamiento.

Artículo 11. Procedimiento de suspensión de las sanciones

1. La autoridad competente para incoar y resolver los expedientes de suspensión de las sanciones, así como para decidir la finalización de la suspensión, será la misma que impuso la sanción.

2. El procedimiento se incoará cuando el infractor, mediante la correspondiente solicitud, manifieste su voluntad de realizar trabajos o actividades en beneficio de la comunidad o su participación en cursos en conformidad con lo establecido en el artículo anterior.

3. Si se resuelve favorablemente a la suspensión, la autoridad competente declarará también suspendido el plazo de prescripción de la sanción, por el tiempo previsto de duración de los trabajos o actividades del curso.

4. Durante el tiempo de suspensión, la autoridad competente podrá efectuar el seguimiento que considere oportuno sobre las asistencias y resultados en las tareas correspondientes.

5. Cuando de la información reunida se deduzca que el infractor ha cumplido satisfactoriamente su compromiso, la autoridad competente acordará la remisión total o parcial de la sanción o sanciones impuestas.

6. El incumplimiento total o parcial, la comisión de una nueva infracción de las tipificadas en esta Ordenanza, determinará que la autoridad competente resuelva la continuación del expediente de ejecución de la sanción.